



ACT-MC-2019/0038

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

1. ZENBAKIDUN ARTXIBO ELEKTRONIKOAK IREKITZEA

(Balio-judizioaren bitartez baloratu beharreko dokumentazioa)

Bileraren gai-zerrenda: Oñatin, GI-2630 errepidean, Olanan errekaaren gaineko lau zubi birgaitzeko proiektu berrikusiko obrak egitea (2-OF-34/2016-RP) obra kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen artxibo elektronikoak irekitzea (1.artxiboa)

Eguna: 2019ko ekainaren 4a

Hasiera/amaiera ordua: 9:15/10:00

Tokia: Bide Azpiegituretako Departamentuaren balio anitzeko 3 gela gela (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Iñigo Zufiria Zatarain, Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua.

Bokalak: Agustín López-Dóriga Fernández, Bide Azpiegituren Proiektuak eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

Maider Apaolaza Lizarazu, Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntza Zerbitzuko HLTa.

Josu Irazusta Astiazaran, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailatza eta Auditoretzako zerbitzuburuaren ordez.

Elixabete Martinez Iruretagoeian, Departamentuko idazkari teknikoa.

Idazkaria: M^a Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren ordez.

Ekintza honetarako Iñigo Zufiria Zatarainek (mahaiburuak) M^a Carmen Delgado Vallejo, izendatu du idazkari gisa, administrazio-klausula partilularren agiriko 22. baldintzak dioenaren arabera.

Gaur, 2019ko ekainaren 4a, Kontratazio Mahaia eratu da 1. artxibo elektronikoak irekitzeko, dokumentazio teknikoa hain zuzen, balio-judizio bidez balioesteko irizpideak.

Ekintza honetan egiaztatuko da aurkeztutako eskaintzek (RETINEO INGENIERIA SL, TRABAJOS ESPECIALIZADOS ZUT SA, CONSTRUCCIONES MOYUA SL eta ORION REPARACIÓN ESTRUCTURAL SL) agirian ezarritako irizpide guztiak sartu dituztela.

Horrela, 1.artxibo elektronikoak ireki dira eta enpresa guztiak beharrezkoa den dokumentazioa sartu dutela ikusi da. Bertaratutakoek oharrrik edo erreklamaziorik egin ez dutenez gero, ekitaldia amaitutzat eman da. 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 159.4.e) artikuluan xedatutakoari jarraituz teknikariek 7 eguneko epean txostena egin beharko dute.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostian, 2019ko ekainaren 4an

MAHAIBURUA,

IDAZKARIA, ordezkapenez

Sin.- Iñigo Zufiria Zatarain

Sin.- M^a Carmen Delgado Vallejo